# Beste zenbait Iragarpen Ofizial
# Otros Anuncios Oficiales

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

IRAGARPENA, Hiri-Antolaketarako Egitamu Orokorraren 2. alorreko Zati Egitamua (Lakua-Eusko Jaurlaritza) jendaurrean jartzeari buruzkoa. 40

IRAGARPENA, Hiri Antolaketarako Plan Orokorraren Aldaketa Puntuala, unibertsitate konplexuaren bigarren aldiko plan bereziari (7. poligonoa) dagokiona, jendaurrean jartzen duena. 40

AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ

ANUNCIO relativo a la exposición al público del Plan Parcial del Sector n. 2 (Lakua-Gobierno Vasco) del Plan General de Ordenación Urbana. 40

ANUNCIO relativo a la exposición al público de la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana, relativa al ámbito de la 2.ª Fase del Complejo Universityario (Polígono n. 7). 40

# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1

289/1992 DEKRETUA, urriaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomi Elkartean «Musika-Eskola» direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituena.

Europako Elkartean musika irakatsi eta sustatzeko Europako Biltzarrak emandako 1988ko otsailaren 10eko Erabakiak, Europako Elkarteko Agintaritzaren Egunkarian martxoaren 14an argitaratuak, besteak beste, honako gogoeta hauek egiten ditu:

A) Egungo gizarte modernoan musikak duen eginkizuna gero eta garrantzi haundiagokoa dela eta herritarren eguneroko bizitzan gero eta gehiago agertzen dela hartzen du kontuan;

B) Badaki jakin Europako musika «mintzaira» bateratua izan dela eta orain ere badela Europan, benetako eta zinezko «mintzaira amankomuna» alegia. Beraz, Europako kulturaren batasunerako, eragile erabakiorra izan daiteke, hain zuzen historian zehar izan dituen desberdintasunak onartuz egin behar den batasun horretarako, uka ezinezko bere aberastasunaren alderdi garrantzitsua baita;

C) Iraganeko musika «landuen», herrikoien eta folklorikoen ondare zati zabal bat oraindik orain ere Europan zehar agertu, ezagutu eta zabaltzeke dagoela egiaztatu du;

D) Gero eta jende gehiagok, batez ere gazteek, musikaren eremura heldu eta bertan partaidetza zuzena hartu behar dutenaz jabetu da; eta, beraz, argi du musika-heziketa indartu egin behar dela, batez ere ikastetxeetan, aldi berean musika-heziketa Europako herrita-

## DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

1

DECRETO 289/1992, de 27 de octubre, por el que se regulan las normas básicas por las que se regirán la creación y funcionamiento de los centros de enseñanza musical específica, no reglada, Escuelas de Música, en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La Resolución del Parlamento Europeo sobre la enseñanza y promoción de la música en la Comunidad Europea del 10 de febrero de 1988, Diario Oficial de las Comunidades Europeas de 14-3, establece, entre otros, los siguientes considerandos:

A) Valorando la función cada vez más importante de la música en la sociedad moderna y su presencia cada vez mayor en la vida cotidiana de los ciudadanos.

B) Consciente de que la música europea ha constituido y constituye un «lenguaje» unitario en Europa, un auténtico y verdadero «lenguaje común», por lo que puede llegar a ser un elemento decisivo para la unificación cultural de Europa, unificación que debe realizarse en el reconocimiento de la diversidad histórica que es parte importante de su innegable riqueza.

C) Constatando que un vasto patrimonio musical del pasado de música «culta», popular y folclórica está todavía a la espera de ser descubierto, conocido y divulgado más ampliamente en Europa.

D) Convencido de que se debe fomentar el acceso a la vida musical y la participación activa en ella de un público cada vez más numeroso, sobre todo de jóvenes, y de que se debe, por ello, intensificar la educación musical, sobre todo en los centros escolares, partiendo

rren eskubide bat dela kontuan hartu behar baita;

E) Gogoan hartu behar da gure garai hauetan musika-adierazpen konplexuak daudela eta, jendearekiko harremanak zailak direla jakinez, laguntza bereziak behar direla musika horiek sortu eta joaldiak egiteko;

F) «Musikaren» inguruan dabilen kultur hausnarketaren aberastasunari, baita gizon-emakumeen gizarteko eta euren bakarreko bizitzan horrek dituen hainbat eta hainbat eraginei ere, behar duten balioa ematen zaie. Aberastasun hori berariaz nabarmendu zen «Europako Musika-Urtea» izan zenean, orduan egindako zientziamaila jasoko bilera eta argitalpenen bidez;

G) Ontzat ematen da, nahiz eta oraindik murritza izan, jazz, rock eta pop musikaren ingurutik sortutako musika-adierazpenei egindako harrera, horien bidez gazte askok berariazko moduz azaltzen baitu euren garaiko konzientzia korapilatsua;

H) Onartu egiten da zer nolako banaketa dagoen gizartearen eta herri-erakundeen artean, bata bizi eta irakiten dabilen artean bestea urria baita musika-arloa antolatzerako garaian; guzti hori presaz gainditu behar dela ere onartzen da.

Aurreko puntu guztiok oinarri direla, honako eskariak eta proposamenak egiten dizkie Elkartekideei:

1.– Bai Europako Elkarteak berak eta bai Elkartekide bakoitzak, lehenengo eta behin, musikarako hiru arlo hauek: ekimenak, finantzaketa publikoa eta egiturak deszentralizatzeko neurriak hartu behar ditu, urrutiago egon eta ekonomi garapen txikiagoa duten eremuei eta baliabide urriagoak dituzten gizazte-taldeei gehiago laguntzeko, musikaren kontsumorako eta musika-karrerak ikasteko izan dadin;

2.– Aipatutako lege-neurri horiek izan behar dituzten lehentasunezko helburuak hauek dira: dauden buru-argiak benetan aurkituko direla ziurtatzea, musika-karreretarako bideak erraztea eta Elkarteko herritar guztien heziketan eta bizitzan musika eta musika-kultura gero eta gehiago agertzeko ahaleginak egitea;

3.– Musika-heziketak konposizio metodo berriak araketzeko izan behar dela uste du Europako Parlamentuak eta hezkuntza horrek soinu berriak ikertu eta sortzea sustatu behar duela, gure garaiko joerekin eta musikazko kultura eta sentsibilitatearen bilakaera azkarrarekin bat datozen soinu eta konposizio metodoak;

4.– Aldi berean, Elkarteko herrialdeen artean ikasleak eta irakasleak trukatzeko egitarauak prestatzen direnean, musikari ere tarte egokia eman behar zaiola uste du;

5.– Urritasun psikofisikoak, psikomotrizitate-asaldurak, egokitzapenerako arazoak eta beste zailtasun batzuk dituztenentzat, musika terapia legez gehiago erabiltzeko egitasmoak egin eta ordain ditzala eskatzen dio Batzordeari; aldi berean, horren ardura duen langilegoari prestakuntza berezia eta bere eginkizunetarako egokiak diren lan-baldintzak berma dakizkiola eskatzen du;

6.– Beharrezkoa izan dadin kasu guztietan, musika-irakasleen lan-baldintzak hobetu ditzala eskatzen dio Elkartekide bakoitzari, herritarren heziketan betetzen duten lan-mailara egokitu daitezen baldintzok;

7.– Rock eta pop musika-adierazpenetan gazteen protagonismoari balioa emateko ekimenak proposa ditzala eskatzen dio Batzordeari, adierazpen hauek kontsumismoaren eta merkatuaren sareetan lotuta uzteko diren ekintzei aurre eginez.

asimismo del principio de que la educación musical es un derecho del ciudadano europeo.

E) Considerando que hay expresiones musicales complejas de nuestro tiempo que precisan de un apoyo especial para su creación y ejecución, a causa de su difícil relación con el público.

F) Valorando la riqueza de la reflexión cultural sobre el fenómeno «música» y sus múltiples implicaciones en la vida social de los hombres y en la privada, riqueza que se manifestó de modo especial durante el «Año Europeo de la Música» a través de reuniones y publicaciones de alto nivel científico.

G) Juzgando positivamente la atención, aunque todavía limitada, que se presta a los fenómenos musicales surgidos del jazz, el rock y la música pop, en los cuales un gran número de jóvenes expresan de manera especial la compleja conciencia de su tiempo.

H) Reconociendo la disparidad entre la rica efervescencia de la sociedad y la insuficiente iniciativa pública en el campo de la organización de la música, así como la necesidad de que todo ello se supere con urgencia.

En base a ellos, eleva a los Estados miembros las siguientes peticiones y propuestas:

1.– Considera que, tanto la Comunidad Europea como cada Estado miembro, deben adoptar en primer lugar medidas de descentralización de las iniciativas, de la financiación pública y de las estructuras musicales para favorecer más a las zonas periféricas y menos desarrolladas económicamente y a los grupos sociales más pobres de medios frente al consumo de la música y el estudio de carreras musicales.

2.– Considera que dichas legislaciones deberán tener como objetivos primordiales: asegurar la prospección efectiva de talentos, facilitar las diferentes carreras musicales, intensificar la presencia de la Música y de la cultura musical en la formación y en la vida de todos los ciudadanos de la Comunidad.

3.– Considera que la educación musical debe conducir a la experimentación de los nuevos métodos de composición y debe alentar la investigación y la creación de nuevos sonidos que se correspondan con las tendencias de nuestra época y con la rápida evolución de la cultura y de la sensibilidad musicales.

4.– Considera que a la música se le debe reservar un lugar adecuado en los programas de intercambios de estudiantes y profesores entre países de la Comunidad.

5.– Pide a la Comisión que elabore y financie proyectos para ampliar el uso terapéutico de la música en los casos de deficiencias psicofísicas, trastornos psicomotores, problemas de inadaptación y otros; asimismo pide que se garantice al personal encargado de ello una formación especializada y condiciones de trabajo acordes con dichos cometidos.

6.– Pide a cada Estado que mejore, allí donde sea necesario, las condiciones laborales de los profesores de música para adecuarlas al nivel de la tarea que desempeñan en la formación del ciudadano.

7.– Pide a la Comisión que proponga iniciativas que valoren el carácter de protagonismo juvenil de las expresiones músicales del rock y de la música pop, oponiéndose a aquellos fenómenos que reducen éstas a meros hechos de consumismo y comercialización.

Hezkuntza-Sistema Antolatzeko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak -II Idazpurua, Jaurbide Bezeriko Irakaskuntzei buruzkoa, lehenengo atalburua, Irakaskuntza Artistikoei buruzkoa, 39.5. atala-, honako hau ezartzen du:

«Aurreko azpiataletan ezarritakoa horrela izan arren, musika edo dantza ikasketak egin ahal izango dira ikastetxe berezietan, inolako adin mugarik jarri gabe. Ikasketa hauen bidez ezingo da ikasketa-baliorik eta lanbiderako balioa duen titulurik lortu; bestalde, ikasketon antolaketa eta egitura esandako azpiataletan ezarritakoengandik diferenteak izango dira. Hezkuntza-administrazioek araubidez arautuko dituzte ikastetxe horiek».

Aipatutakoa ikusi ondoren, honako gogoeta hauek adierazi behar dira:

1.– Irakaskuntza hauek ematcko bi era berezitu ezartzen dira:

– Araututakoa, oinarrizko maila, erdikoa eta goikoa hartzen dituena;

– Arautu gabea, ikasketa-baliorik eta lanbiderako balioa duen titulurik lortzeko ez dena eta ikastetxe berezietan ematekoa (aurrerantzean, Musika-eskolak deituko zaie);

2.– Guzti horrekin bereizketa argia egin nahi da araututako eta arautu gabeko irakaskuntzen artean; lehenengoa lanbiderako da eta hori da bere izaera, euren gaitasunez eta joeraz euren lanbidea musikan egin nahi duten ikasleentzat egituratua; eta bigarrena, edo helburukoa, musikagintza bera helburu dela hori egin nahi duten pertsonentzat, adin mugarik gabe: hasiera batean, lanbiderako izango denik barik, musika egin nahi dutenentzat.

Horien indarrez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzak 1992ko urriaren 27an egindako bileran aztertu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

I. IDAZPURUA

Musika-eskoletako irakaskuntzen ezarpen-eremua, helburuak eta antolaketa.

I. ATALBURUA.– EZARPEN-EREMUA ETA HELBURUAK

*1. atala.*– 1.– Hezkuntza-Sistema Antolatzeko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko 39.5 puntuan aipatzen diren Musika-eskolak araupetzen ditu dekretu honek.

2.– Euskal Autonomi Elkartean ezarriko da arau hau, hori baita Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Sailaren kudeaketa-eremua.

*2. atala.*– Musika-eskolen helburu nagusia da edozein adinetako zaletuei tradizioan oinarritutako dantza eta musikaren alorretan prestakuntza praktikoa ematea, gaitasun eta bokazio berezia erakusten dituztenak lanbide-ikasketarako bideratzeko eta prestatzeko zeregina alde batera utzi gabe.

*3. atala.*– Musika-eskolen helburuak:

a) Gizarteak luze-zabal eskatzen duen musika-kultura praktikoari erantzuteko dira, hain zuzen musikazaleak horren bidez bere burua hobetzea eta bere kultura eta adierazpidearen altxorra handitzea bilatzen

La Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, en su Título II, de las Enseñanzas de Régimen Especial, Capítulo primero, de las Enseñanzas Artísticas, Artículo 39.5, establece:

«Con independencia de lo establecido en los apartados anteriores, podrán cursarse en escuelas específicas, sin limitación de edad, estudios de música o de danza, que en ningún caso podrán conducir a la obtención de títulos con validez académica y profesional y cuya organización y estructura serán diferentes a las establecidas en dichos apartados. Estas escuelas se regularán reglamentariamente por las Administraciones educativas».

A la vista de lo señalado procede exponer los siguientes considerandos:

1.– Se establecen dos formas diferenciadas de impartir estas enseñanzas:

– La reglada, que comprende los Grados Elemental, Medio y Superior.

– La no reglada, no conducente a títulos con validez académica y profesional, a impartir en Escuelas específicas (en adelante, Escuelas de Música).

2.– Se pretende con ello hacer una clara distinción entre la enseñanza reglada, de carácter y objeto profesional, orientada a alumnos que por capacidad e inclinación desean hacer de la música su profesión, y la no reglada, o de finalidad, para aquellas personas sin límite de edad que deseen acercarse a la práctica musical como una finalidad en sí: practicar la música sin perspectivas profesionales a priori.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación del Consejo de Gobierno de 27 de octubre de 1992,

DISPONGO:

TITULO I

Del ámbito de aplicación, objetivos y ordenación de las enseñanzas en las Escuelas de Música.

CAPITULO I.– DEL AMBITO DE APLICACION Y SUS OBJETIVOS

*Artículo 1.*– 1.– El presente Decreto regula las Escuelas de Música a que se refiere el Artículo 39.5 de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo.

2.– La presente norma será de aplicación en la Comunidad Autónoma de Euskadi, ámbito de gestión del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

*Artículo 2.*– Las Escuelas de Música tendrán como finalidad general ofrecer una formación práctica en música y danza de raíz tradicional dirigida a aficionados de cualquier edad sin perjuicio de su función de orientación y preparación para los estudios profesionales de quienes demuestren una especial vocación y aptitud.

*Artículo 3.*– Objetivos de las Escuelas de Música.

a) Dar satisfacción a una amplia demanda social de cultura musical práctica a cuyo través el amante de la música busca una mayor realización personal, una amplitud de su acervo cultural y expresivo conducente a

baitu, bere buruarekin eta inguruarekin oreka haundiagoa izateko;

b) Arautu gabeko eta funts-funtsean praktikoa den musika-irakaskuntza eskaintzeko dira, batez ere taldekako musika egin ahal izateko;

c) Ondorioz, ikaslearen partaidetza eragilea sustatu behar da batetik, bai bakar-lanean eta bai taldean, eta bestetik ikastetxearen eta berau errotuta dagoen gizartearen arteko loturak. Norberarengan hasi eta, gizartera hedatu gabe, bertan amaitzen den ikasketak galdu egiten ditu ikasketak egiteko dauden arrazoi batzuk;

d) Musika kontuak orokorrago ulertu ahal izateko ezinbesteko diren gutxienezko gai teorikoak emango dira, eta hasteko behintzat, ikasleak gaiak sakonago jakiteko premia duen heinean berak horrela eska dezanean emango ere;

e) Adina kontuan izan gabe eskainiko da zerbitzu hori, hasi haurretan eta zaharrak barne;

f) Musika-jardueren artean dauden aukera guztiak eskaintzea: musika klasikoa, antzinakoa, modernoa, tradizioan oinarritutakoa, herrikoia, joera desberdinetakoa, rocka, jazza, elektronikazko musika, e.a.;

g) Irakaskuntzako egitarauak ikaslearen interesari, emanari eta martxari egokituko zaizkie, baina, ikasleek ere, beroiek jasotzen dituzten irakaskuntzei probetxu egokia ateratzeko gutxienezko baldintzak bete behar dituztela ahaztu gabe.

Azken batean, euren eskaintzaren plana egiterakoan askatasuna eta autonomia daukate, ikaslearen interes eta gaitasunetara hobeto egokitzeko.

h) Estilo guztietako musikak entzuteko gogoa indartzea eta kritikarako gaitasuna garatzea, bai ikasleengan eta bai herritarrengan;

i) Irakaskuntzarako tekniken hobekuntza sustatzea, irakasleak eten gabe hobetuz eta egunean jarriaz;

j) Euren gaitasuna eta interesa direnak direlako, araututako iraskaskuntzetara sartzeko baldintzak bete eta asmoa agertzen duten ikasleei prestakuntza sakonagoa bideratzea eta ematea, mintegi hauetatik sortutako ikasle gogotsu eta gaituez hornituko baitira araututako musika-irakaskuntzetarako ikastetxeak;

k) Herriko eta eskualdeko musika-tradizioak bildu, tajutu eta zabaltzea, ikastetxea kokatuta dagoen herriko kultura-nortasunaren gune bilakatuz;

l) Beste Musika-eskolekin lankidetzan aritzea, Herrialdean, Euskadin, Espainian eta Europan, irakaskuntza metodologiak, ikasleak eta irakasleak elkarren artean trukatzeko, jarduera batzuk batera egiteko, antolaketa eta jardutzeko ereduen berri elkarri emateko, e.a.

m) Herriko musika-kulturan eragin baikorra izatea, ez bakarrik ikasleen prestakuntza lortuaz, baizik eta musika-taldeen jendaurreko etengabeko jarduera bidez gizartean musika zabaltzeko zuzeneko ekintzak landuz.

II. ATALBURUA.- IRAKASKUNTZEN ANTOLAKETA

*4. atala.*- Musika-eskolek eman ahal izango dituzten prestakuntza eta gaitasun-mailak lau dira:

- 1. maila edo harrerakoa, 4tik 7 urtera.

un estado de mayor armonía consigo mismo y su entorno.

b) Ofertar enseñanza musical de carácter no reglado y componente eminentemente práctico, con el fin primordial de realizar música grupal.

c) Consecuentemente, fomentar la participación activa del alumno, a nivel individual y grupal, y la interacción Escuela-ámbito social en que se encarna. Un aprendizaje que empieza y acaba en uno mismo, sin trascendencia a la sociedad, pierde gran parte de su propia razón de ser.

d) Impartir los aspectos teóricos mínimos imprescindibles para una comprensión más global del hecho musical y, en principio, a partir de la demanda de los mismos por el propio alumno que sienta la necesidad de una mayor profundización.

e) Posibilidad de ofertar dicho servicio a alumnos sin consideración a su edad, desde la infancia a la vejez.

f) Ofertar toda la gama existente en torno a la actividad musical, tanto en cuanto a música clásica, antigua, moderna, de raíz tradicional, popular, tendencias diversas, rock, jazz, música electrónica, etc...

g) Adecuar la programación de la enseñanza a los intereses, dedicación y ritmo de aprendizaje del alumno, bien entendido que también el alumnado deberá tener unas mínimas condiciones que le permitan el aprovechamiento adecuado de las enseñanzas recibidas.

En consecuencia, libertad y autonomía en la planificación de su oferta en aras a una mejor adecuación a los intereses y aptitudes del alumno.

h) Potenciar el gusto por la audición de todo tipo de estilos musicales y desarrollar el espíritu crítico, tanto a nivel del alumnado como de la población.

i) Fomentar el perfeccionamiento de las técnicas docentes mediante un permanente perfeccionamiento y actualización del profesorado.

j) Orientar y proporcionar una formación más profunda a aquellos alumnos que por su capacidad e interés tengan condiciones y voluntad de acceder a los estudios reglados, siendo uno de los viveros de los que se surtirán de alumnos motivados y capacitados los Centros docentes de enseñanzas musicales regladas.

k) Recoger, sistematizar y difundir las tradiciones musicales locales y comarcales deviniendo en foco de identidad cultural del pueblo en que se entronca.

l) Coordinarse con el resto de las Escuelas en sus Niveles Territorial, de Euskadi, España y Europa al objeto de mantener contactos que faciliten el intercambio de metodologías docentes, de profesorado y alumnado, actividades conjuntas, modelos organizativos y de funcionamiento, etc...

m) Incidir positivamente en la cultura popular musical, no sólo a través de la formación del propio alumnado, sino también por la acción difusora directa de la música en la sociedad mediante una constante actividad pública de sus grupos musicales.

CAPITULO II.- DE LA ORDENACION DE SUS ENSEÑANZAS

*Artículo 4.*- Los niveles de formación y competencia que podrán impartir las Escuelas de Música serán cuatro:

- Nivel 1 ó de contacto, de 4 a 7 años.

Ez da gaitasun-mailarik izango. Haurraren nortasunaren garapen orekatua bultzatuko du, soinuen bidez irakaslearekiko eta beste lagunekiko harramenak indartuz. Bere buruaz jabetu behar da, bere barnean eta inguruan dituen pertsonekin eta gauzekin orekan bizi behar denaz ohartuta. Pausoz pauso hartuko du musikatresna zehatz bat, bospasei urte dituela.

– 2. maila edo hasierakoa.

Dena delako musikatresna adierazpenerako beste gai bat gehiago dela ulertu behar du, eta bere nortasuna eta sentsibilatea garatzeko balio diola. Iraskasleak emango duen irakaskuntza teknikoa, musikatresnak baliabide legez duen eragina indartzeko izango da, ikasleak beharrezko baitu musikatresnaren teknikaz jabetzea bere adierazpena hobetzeko.

Hasierako maila jasotzen duen ikaslea lehenengoz hurbiltzen bada musikara, hau da 1. edo harrerako mailatik ez badator, bere adin eta baldintzetara egokitu beharko da pedagogia.

Kontserbatorioko Oinarrizko Maila gainditzen duten ikasleek besteko gaitasuna lortu behar du.

– 3. maila edo gotortzekoa.

Kontserbatorioko maila ertaineko 2. aldia gainditzen duten ikasleek besteko gaitasuna lortu behar du musikatresnarekin edo kantuan.

– 4. maila edo lehentasunezko jarduerakoa.

Ez dauka gaitasun mugarik, ikaslearen gogoak, saiamenak eta ahalmenak jarritakoa baino besterik. Gaitasun hori, orokortasunez, Eskolako taldeetan parte hartuz indartako da.

*5. atala.–* «Joera desberdinak: jazz, rock, pop, elektronikazko musika,...» izenez ezagutzen den adarreko irakaskuntzen eskaintza, baita koru-kantu eta dantza espezialitateetakoak ere, Musika-eskolako erizpideen arabera, Dekretu honetako 17. atalean ohartemandako mailen jardunbide-eskemara egokitu gabe egin daiteke, nahiz eta funtsezko irakaskuntza izan, azken batean oinarrian taldeka burutu beharreko jarduera delako.

*6. atala.–* Musika-eskoletako irakaskuntza-maila guztiak adarretan banatuko dira:

– kantuko adarra, bai bakarka bai korukoa;
– musikatresna sinfonikoko musikako adarra;
– tradizioan oinarritutako musikatresnen musikako eta dantzako adarra;
– joera desberdinetako adarra: Jazz, rock, pop, elektronikazko musika,...
– musikatresna polifonikoen adarra.

*7. atala.–* Musika-eskolek emango dituzten irakaskuntzak hauexek izango dira maila bakoitzean, maila bakoitzeko adar guztietan eta, hauen barruan, espezialitate danetan:

– funtsezko irakaskuntza;
– taldekako irakaskuntza;
– Dekretu honetan ohartemandako beste guztiak eta berton ezarritako baldintzetan.

No habrá nivel de competencia. Potenciará el desarrollo armónico de la personalidad del niño a través de la interacción con el docente y el resto de los compañeros por medio de la actividad sonora. Adquirirá conciencia de sí mismo como un ser en armonía interior y con los y lo que le rodea. Progresivamente irá tomando contacto con el instrumento específico a partir de los cinco o seis años.

– Nivel 2 ó de iniciación.

Conceptualizará el instrumento como un elemento expresivo más y de desarrollo de su propia personalidad y sensibilidad. El aspecto puramente técnico lo potenciará el docente sólo con carácter instrumental, como elemento necesario para mejorar la expresividad del alumno.

Si la iniciación se imparte a un solicitante que toma por primera vez contacto con la música, no proviniente pues del Nivel 1 ó de Contacto, la pedagogía se adaptará a su edad y condiciones.

La competencia a conseguir será la de un alumno que supera el Grado Elemental de Conservatorio.

– Nivel 3 ó de afianzamiento

El alumno adquirirá una competencia instrumental o de Canto equiparable al alumno que supera el 2.º Ciclo de Grado Medio de Conservatorio.

– Nivel 4 ó de actividad preferente

No tiene más límite de competencia que la que el interés, dedicación y capacidad del alumno le marquen. Competencia que se potenciará, con carácter general, a través de la participación en los conjuntos de la Escuela.

*Artículo 5.–* La oferta de enseñanza de la rama denominada «Tendencias diversas: Jazz, rock, pop, música electrónica ...», así como las especialidades de canto coral y danza, podrán, a criterio de la Escuela, no ajustarse al esquema de funcionamiento por niveles, previsto en el Artículo 4 de este Decreto, a pesar de su carácter de enseñanza principal, dado su componente fundamental de actividad grupal.

*Artículo 6.–* Las enseñanzas de Escuelas de Música se dividirán, en todos sus niveles, en ramas:

– Rama de Canto, tanto solista como coral
– Rama de Música instrumental sinfónica
– Rama de Música instrumental y danza de raíz tradicional
– Rama de tendencias diversas: Jazz, rock, pop, música electrónica, ...
– Rama de instrumentos polifónicos.

*Artículo 7.–* Las enseñanzas a impartir por las Escuelas de Música en cada uno de sus Niveles, Ramas de los mismos, y especialidades dentro de éstas, serán:

– Enseñanza principal
– Enseñanza de Conjuntos
– Cuantas otras se contemplan en el presente Decreto y en las condiciones que en el mismo se establecen.

## II. IDAZPURUA.– INSTALAKUNTZEI ETA GAUZAZKO BALIABIDEEI ZEIN IRAKASKUNTZA-ESKAINTZARI DAGOKIENEZ MUSIKA-ESKOLEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

### I. ATALBURUA.– INSTALAKUNTZEI ETA GAUZAZKO BALIABIDEEI DAGOZKIEN BALDINTZAK

*8. atala.*– Musika-eskolek honako baldintzak beteko dituzte gutxienez, instalakuntzei eta gauzazko baliabideei dagokienez:

1.– Irakasteremuak:

Gelak: honako banaketa bi hauetarikoren bat hartu ahal izango da:

a) musikatresnen irakaskuntzarako 4 gela, azaleran gutxienez 20m.² dituztela;
b) musikatresnen irakaskuntzarako 20 m.²ko 2 gela eta 15 m.²ko 3 gela;

– koruek, musika-bandek, orkestrek, dantzako taldeek, e.a. entseiuak egiteko gela, azaleran gutxienez 80 m.² dituela.

2.– irakaskuntzaren laguntzarako eremuak:

– liburutegi-fonoteka bat, azaleran gutxienez 30 m.² dituela;
– irakasle gela bat, azaleran gutxienez 20 m.² dituela;

3.– kudeaketa eta zerbitzuetarako eremuak:

– 40 metro karratuko eremua kudeaketa, idazkaritza eta abarretarako;

4.– komunak eta garbigela egokiak ikastetxeko ikasle eta irakasleentzako.

*9. atala.*– Musika-eskolek euren irakaskuntza-egitamua egiteko beharrezko izan ditzaten gela kopurua eduki beharko dute, ikasle kopurua, ordutegia, irakasle-ikasleen arteko kopuru-erlazioa eta jardunerako ordutegia kontuan hartuta.

*10. atala.*– Musika-eskolek eraikin bakar batean kokatu eta besteengandik berezita egon beharko dute; horretarako erabiliko da bakarrik edo, bestela, kulturarekin eta/edo hezkuntzarekin zerikusia duten ekintzetarakoekin batera. Nolanahi ere, lokal horiek irakaskaskuntzarako bakarrik erabiliko dira eta kanpotiko sarpide zuzena izango dute.

*11. atala.*– Musika-eskolek, Dekretu honetan ezarritako baldintzez gain, garbi-ikuziari, akustikari, bizigaitasunari eta segurtasunari buruz indarrean dauden legeek ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

*12. atala.*– Musika-eskolek, ezinatasunak dituen jendeak bertara joateko aukera izan dezan, instalakuntzetara sartu eta hauek erabiltzeko baldintza egokiak izango dituzte, ezargarri den legean erabakitakoaren arabera.

### II. ATALBURUA.– IRAKASKUNTZA-ESKAINTZARI DAGOZKION BALDINTZAK

*13. atala.*– Dekretu honetako 4. atalean aipatzen diren lau mailetatik jarraiko bi gutxienez eman beharko dituzte Musika-eskola guztiek.

*14. atala.*– Dekretu honetako 6. atalean aipatzen diren adarretatik gutxienez bi eman beharko dituzte Musika-eskola guztiek; nahitaez bata musikatresna sinfonikoko musika izan beharko da.

## TITULO II.– DE LOS REQUISITOS QUE HAN DE REUNIR LAS ESCUELAS DE MUSICA EN CUANTO A INSTALACIONES Y CONDICIONES MATERIALES Y EN RELACION A LA OFERTA DOCENTE

### CAPITULO I.– DE LOS REQUISITOS EN CUANTO A INSTALACIONES Y CONDICIONES MATERIALES

*Artículo 8.*– Las Escuelas de Música tendrán como mínimo los requisitos siguientes en cuanto a instalaciones y condiciones materiales:

1.– Ambitos docentes:

Aulario: Podrá adoptarse alguna de las dos distribuciones siguientes:

a) 4 aulas de enseñanza instrumental de una superficie mínima de 20 m.².
b) 2 aulas de 20 m.² y 3 de 15 m.² para enseñanza instrumental.

– Una sala de ensayos de coro, banda, orquesta, danza, etc. con una superficie mínima de 80 m.².

2.– Ambitos de apoyo a la docencia:

– Una biblioteca-fonoteca de una superficie mínima de 30 m.².
– Una sala de profesores de al menos 20 m.².

3.– Ambitos de gestión y servicios:

– 40 metros cuadrados para gestión, secretaría, etc...

4.– Adecuada instalación de servicios y aseos para alumnos y personal del centro.

*Artículo 9.*– En función del número de alumnos, su horario y ratio profesor-alumno, y el horario de funcionamiento, las Escuelas deberán disponer del número de aulas complementarias que fueran precisas para realizar su plan docente.

*Artículo 10.*– Las Escuelas de Música deberán situarse en un sólo edificio e independiente, destinado a su uso exclusivo o en conjunción con usos culturales y/o educativos o, en todo caso, en locales de uso exclusivamente docente con acceso independiente desde el exterior.

*Artículo 11.*– Las Escuelas de Música deberán reunir las condiciones sanitarias, acústicas, de habitabilidad y seguridad que rijan según la legislación vigente, además de los requisitos que se establecen en el presente Decreto.

*Artículo 12.*– Las Escuelas de Música dispondrán de las condiciones de uso y acceso a las instalaciones que posibiliten la asistencia al personal con discapacidades, de acuerdo con lo dispuesto en la legislación aplicable.

### CAPITULO II.– DE LOS REQUISTOS EN RELACION A LA OFERTA DOCENTE

*Artículo 13.*– Toda Escuela de Música deberá impartir como mínimo dos niveles consecutivos de los cuatro que se contemplan en el Artículo 4 del presente Decreto.

*Artículo 14.*– Toda Escuela impartirá como mínimo dos ramas de las que se contemplan en el Artículo 6 del presente Decreto, de las cuales será forzosamente una la de música instrumental sinfónica.

Adar bakoitzetik gutxienez bi espezialitate eman beharko dituzte, kantuko eta musikatresna sinfonikoko musikako adarretan izan ezik. Kantukoan bat ematea nahiko izango da eta musikatresna sinfonikoko musikakoan gutxienez lau musikatresna emango dira harizko, egurrezko haizeko eta metalezko haizeko orkestra-familien artetik.

Azken adar hori osa daiteke familia bakarreko lau musikatresnarekin edo aipatutako hiru familietatik bietako musikatresna binarekin.

*15. atala.*– Gutxiengo irakaskuntzak:

Musika-eskolek, baimenik baldin badute, emango dituzten adar eta maila bakoitzerako gutxiengo irakaskuntzak hauexek dira:

1.– Funtsezko irakaskuntza:

Musikatresna-arloan: musikatresnak;

Kantu-arloan: bakarko eta/edo koruko kantua, eta hori beste jakintzagai batzukin osa daiteke, adibidez: ahots-teknika, musika irakurketa,...;

Tradizioan oinarritutako adarra: musikatresnak edo dantza;

2.– taldekako irakaskuntza: musikatresna- eta abesbatzak;

3.– 2. maila edo hasierako irakaskuntza honako erizpide hauen arabera egingo da:

– Ikaslea zazpi urtekin hasten baldin bada, hauek izango dira bere ikasketak:

a) Musika-mintzairako sarrera;

b) Aurretik musikarekin harremanik izan ez badu, funtsezko irakaskuntzara bideratuko da. Aurrez musika munduan aztura duelako bere asmoak zehaztuta badaude, funtsezko irakaskuntzarekin hasiko da;

– Ikasle guztiek egingo dute musika-mintzairako ikastaro bat, maila horri dagokion ezagutzarik egiaztatzen ez badute;

– Musika-eskolek, euren borondatez eta euren egitarau orokorraren baitan, musika-mintzairako beste bigarren eta baita hirugarren ikastaro bat ere eskaini ahal izango dute. Ikastaro hauek aukerakoak izango dira ikaslearentzat, musika-mintzaira musikatresnari zuzenean lotu behar baitzaio eta, ondorioz, haren helburua instrumentala baino ez baita;

– Aipatutako musika-mintzairako ikastaro guztiak taldeka emango dira, gehienez 20 eta gutxienez 10 ikaslez osatuta; asteko iraupena gehienez ere 90 minutukoa izango da.

*16. atala.*– Aukeran eta osagarri legez, Musika-eskolek beste edozein irakaskuntza eman ahal izango dute ikasleak hobeto menderatu ditzan bai funtsezko irakaskuntza eta bai musika bera ere orokorrean.

III. IDAZPURUA.– IRAKASKUNTZAREN ANTOLAKETA, IRAKASLEGOAREN TITULAZIOA ETA MUSIKA-ESKOLEN IKUSKAPEN ETA KUDEAKETA

I. ATALBURUA.– IRAKASKUNTZAREN ANTOLAKETA

*17. atala.*– 1.– Musika-eskoletan emango den irakaskuntza guztia berez taldekakoa izango da; hau da, ikasle taldeak ikasgelako jardunean lan bera -Taldeak, ira-

De cada rama impartirá como mínimo dos especialidades, salvo en la de canto, que bastará con una, y en la de música música instrumental sinfónica, que comportará un mínimo de cuatro instrumentos, de las familias orquestales de cuerda, viento-madera y viento-metal.

Esta rama instrumental sinfónica podrá conformarse con cuatro instrumentos de una sola familia, o con un mínimo de dos instrumentos por familia de dos de las mencionadas.

*Artículo 15.*– Enseñanzas mínimas:

Las Escuelas de Música impartirán en cada una de las ramas y niveles para las que está autorizada las siguientes enseñanzas mínimas.

1.– Enseñanza principal:

En las ramas instrumentales: instrumento.

En la rama de canto: canto solista y/o coral, complementable con: técnica vocal, lectura musical ...

En la rama de raíz tradicional: instrumento o danza.

2.– Enseñanza de conjunto: grupos instrumentales y corales.

3.– En el Nivel 2 ó de Iniciación la impartición de la enseñanza contempla asimismo los siguientes criterios:

– Cuando el alumno se inicie a los siete años, su enseñanza contemplará:

a) Iniciación al Lenguaje musical.

b) Orientación a la enseñanza principal si no ha tenido contacto previo con la Música. Si su interés estuviese definido por disponer de experiencia musical previa, se iniciará con enseñanza principal.

– Todo alumno realizará un curso de Lenguaje musical si no acredita un conocimiento equiparable al mismo.

– Las Escuelas podrán además programar la enseñanza complementaria de Lenguaje musical que juzguen precisa para el adecuado progreso del alumnado en su aprendizaje de la enseñanza principal de instrumento y canto. Esta oferta tendrá en todo caso carácter optativo para el alumno dado el objetivo exclusivamente instrumental que ha de tener el Lenguaje en la Escuela en función de su aplicación directa al instrumento.

– Todos los cursos de Lenguaje musical contemplados se impartirán en grupos máximos de 20 alumnos y mínimos de 10 alumnos y con una duración máxima semanal de 90 minutos.

*Artículo 16.*– Optativamente y como complementarias, las Escuelas de Música podrán impartir cualesquiera otras enseñanzas que ayuden al alumno a un mejor dominio de su enseñanza principal y del hecho musical en su conjunto.

TITULO III.– DE LA ORGANIZACION DE LA DOCENCIA, TITULACION DEL PROFESORADO, INSPECCION Y GESTION DE LAS ESCUELAS DE MUSICA

CAPITULO I.– DE LA ORGANIZACION DE LA DOCENCIA

*Artículo 17.*– 1.– Toda la docencia de una Escuela de Música es por definición de carácter colectivo, entendida por tal aquella en que el grupo de alumnos partici-

kaskuntza osagarriak, tradizioan oinarritako dantza-egingo dute.

2.– Musikatresnaren edo bakarkako kantuaren funtsezko irakaskuntza taldeka ere emango da, baina horien balorazioa alda daiteke irakaskuntzan nagusitzen diren eskola edo joeren arabera.

Ondorioz, musikatresnaren eta bakarkako kantuaren funtsezko irakaskuntza saioen erdietan behintzat taldeka antolatu beharra dago, bai denentzako eskolak emanez, bai eskola konpartituen bidez. Eskola konpartituan taldeko partaide bakoitzak bere lana du eta besteek bakoitzari ematen zaizkion irakaskuntza-azalpenak konpartitzen dituzte, fintzeko eta berotzeko aldiak, denentzako oharrak eta abar talde osoari egingo zaiolarik. Edonola ere, taldeak gaitasun, interes eta ikasteko martxa erdintsua dutenek osatuko dituzte.

3.– Taldeak antolatzeko eragozpenak daudelako, antzerako gogo, maila eta gaitasuna duten kideekin taldeak osatu ezin direnean, bakarka eman ahal izango da irakaskuntza.

4.– Ikastetxeak funtsezko irakaskuntzako ikasle edo talde bakoitzari emango zaion denbora zehaztuko du ikasleek duten gogoaren, gaitasunaren eta dauden ikasleen kopuruaren arabera; ikastetxeko ordutegiaren egitamuan agertu beharko da, irakasle bakoitzak proposatutako egitamua aurrez kontuan hartuta.

Hezkuntza-administrazio honen erizpidea da, musikatresnaren edo bakarkako kantuaren funtsezko irakaskuntzan, ikasle bakoitzari gehienez 30 minutu eskaintzea Musika-eskolen irakaskuntza-helburuak betetzeari egokitzen zaiola.

5.– Dekretu honetan arautu gabeko taldekako irakaskuntzen denborak, lortu nahi diren helburuen arabera zehaztuko ditu ikastetxeak.

6.– Irakaskuntza osagarrietarako eskaintza, bai aldibaterakoak eta puntualak izan, zein iraunkorrak badira ere, aurreko puntuan azaldutako jardunbidearen arabera zehaztuko da. Ikasgela bakoitzean egongo den ikasle kopurua eta eman behar zaien denbora zehazteko erizpidea, proposatutako helburuak lortzeko behar dena baino gehiago ez ematea izango da.

Eskaintza horrek iraunkorra izan nahi duenean, Dekretu honetako 21. atalean ezarritako jardunbideaz arautuko da.

7.– Ikastetxean emandako ordutegiaren ariora lortu beharreko probetxua ateratzen dutela erakutsi beharko dute ikasle guztiek, bestela ikastetxetik kanpora bota ahal izango dira, barne jaurbideko arautegian jasotako bideak erabiliz.

*18. atala.*– Irakaskuntzen egitaraua:

Autonomia osoa izango du Musika-eskolak adar eta maila bakoitzeko irakaskuntzen egitarauak gertatzeko, erizpide bakar bat izango dutelarik gidari: eman daitezen adar eta espezialitateetako maila berdintsu guztiak gainditzeko, ikasle guztiek gaitasun-maila parekatsua beharko dutela.

*19. atala.*– Gotortzeko ikasleak: baldin eta, ikasleren batek gaitasun, gogo eta aprobetxamendu bereziak izanik, arautzeko irakaskuntzara sartzeko haren aurrerapausuak indartzea komenigarria dela irakasleak uste

pa en la clase con el mismo trabajo: Conjuntos, danza de raíz tradicional, enseñanzas complementarias...

2.– La enseñanza principal de instrumento o canto solista debe tener también un adecuado tratamiento de carácter grupal si bien su valoración es variable en función de las diversas tendencias o escuelas pedagógicas dominantes.

En consecuencia, dicha enseñanza principal de instrumento o canto solista deberá organizarse con carácter grupal en al menos la mitad de las sesiones, bien sea por el procedimiento general de clase colectiva bien por el de clase compartida, entendida por tal aquella en que cada componente del grupo tiene su propio trabajo y los demás comparten la docencia impartida a cada uno, siendo de carácter conjunto las fases de afinamiento, calentamiento, explicaciones de carácter común etc... En todo caso los grupos será conformados en función de las capacidades, intereses y ritmo de aprendizaje homogéneos de sus componentes.

3.– Cuando por dificultades organizativas no se puedan hacer grupos de similar interés, nivel y aptitudes, se podrá impartir la docencia con carácter individual.

4.– Los tiempos de dedicación a cada alumno o grupo de enseñanza principal se determinarán por el centro en función de los intereses, capacidad y disponibilidad del alumnado, debiendo figurar en el plan horario del centro, previa consideración del plan propuesto por cada profesor.

